

Ebazpena: R173/2022

Espedientea: 45/2012

Vitoria-Gasteizen, 2022ko abenduaren 15ean.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordeak –Violeta Ruiz Almendral batzordeburuak eta Soffía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osatuak– erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean BFA) Zerga Administrazioako Estatu Agentziarekiko (aurrerantzean ZAEA) aurkeztu duen gatazkari buruzkoa. Erabakiaren helburua da zehaztea nor duen eskumena CSA zergapekoari 2002ko BEZa ordainarazteko eta sortutako interesak itzultzeko. Gatazka Arbitraje Batzorde honetan izapidetu da, 45/2012 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- CSAk 2002ko BEZa itzultzeko eskatu zion BFari, eta hark atzera bota zuen eskaera, zerga-egoitza Araban zegoela iritzita.

Atzera botatzearen aurka, berraztertzeko errekurtsua aurkeztu zen, bide ekonomiko-administratiboan, eta ondoren administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, eta, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak 2008ko azaroaren 3an ebatzi zuen 2002ko BEZari zegokion zenbatekoa itzuli behar zuela BFAk.

2.- 2005eko abuztuaren 12an, BFAk ZAEARI proposatu zion zergapekoaren zerga-egoitza Logroñora aldatzea, eta 2007ko maiatzaren 16ko idazki bidez onartu zen eskaera.

2007ko uztailaren 2an, zergapekoak bere helbide fiskala Nafarroara aldatu zuen, eta bertan dago harrezkero.

3.- BFAk 2002ko BEZari zegokion itzulketa egin zuen, lehen aipatutako 757/2008 epaia betez.

4.- Zerga-egoitzaren 2022rako atzeraeraginari zegokion finantza-fluxuak bidaltzeko eskatu zion BFAk ZAEARI, eta, 2002ko BEZaren autolikidazioari dagozkion interesak itzultzea izan ezik beste dena onartzen zuela jakinarazi zion ZAEAK BFARI 2010eko otsailaren 8an.

5.- 2012ko uztailaren 18an, BFAk ZAEARI jakinarazi zion ez zegoela ados 2002ko BEZetik eratorritako interesak bidaltzeko eskaera ez onartzearekin, eta ZAEAK berretsi egin zuen ezezkoa.

6.- 2012ko irailaren 22an, eskumena baliatzeari uzteko errekerimendua egin zuen BFAk eta, urte bereko urriaren 26an, atzera bota zuten errekerimendu hori.

7.- 2012ko azaroaren 23an, BFAk eskumen-gatazka aurkeztu zuen 2002ko BEZa eta hori 2009an benetan itzuli zen arte sortutako berandutze-interesak itzultzeko eskumena dela-eta.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Ekonomia Itunaren 66. artikulua ezartzen du eginkizun hauek dituela Arbitraje Batzordeak:

a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.

Kasu honetan ez dago desadostasunik zergapekoaren egoitzari buruz, ez eta 2002ko BEZa ordainarazteko eskumenari buruz ere. 1760/2007 Errege Dekretuaren bidez onartu zen Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Araudiaren (aurrerantzean EIABA) 15.2 artikulua aplikazioaren eta berandutze-interesen sortzapenaren kasu zehatzean aplikazio horretatik eratortzen diren ondorioen ingurukoa da desadostasun bakarra, eta, beraz, Arbitraje Batzordeak ebazteko eskumena du.

2.- Arauak

EIABAko 15.2 artikulua hau adierazten du:

Harik eta eskumen-gatazka ebazten ez den arte, kasuan kasuko zergadunak zergapetzen aritu den administrazioak zergadunok bere eskumenaren pean edukitzen jarraituko du, alde batera utzita administrazioen artean egin behar diren tributu arloko zuzenketa eta konpentsazioak. Administrazio horien jarduketak, bestalde, Arbitro Batzordearen arabera, administrazio eskudun berriak jatorria duen datara atzeratu beharko ditu bere jarduerak, ondorioetarako.

3.- Arbitraje Batzordearen jarrera berandutze-interesen inguruan

EIABAko 15.2 artikulua honako hau du abiapuntu: arau orokor gisa, zergapeko bat zergapetzen ari den administrazioak zergapeko hori bere eskumenaren menpe edukitzen jarraitu behar du, eskumenaren inguruko auzia ebatzi arte.

Egia da EIABAko 15.2 artikulua eta Ekonomia Ituneko 66.Hiru artikulua ezartzen dutela aurreikuspen hori, Arbitraje Batzordeari aurkezten zaizkion eskumen-gatazkei dagokienez. Eta egia da, halaber, manu horiek ez dutela ezer ezartzen administrazioen artean sortzen diren desadostasunei dagokienez, desadostasun horiek administrazioen artean modu baketsuan, Arbitraje Batzordean gatazka aurkeztu gabe, ebazten direnean (hala gertatu zen, esate baterako, CSA, Saren zerga-egoitzarekin).

Hala ere, Arbitraje Batzorde honen ustez, ez dago arrazoirik aurreikuspen bera ez aplikatzeko administrazioen arteko desadostasunen ebazpen baketsuko eta gatazkarik gabeko kasuetan, are gehiago desadostasun horiek, Arbitraje Batzordean formalki aurkeztutako gatazkek bezala, kalte egin diezaioketenean

zergapekoari, eta are gehiago zergapekoak halakorik jasateko arrazoirik ez dagoenean.

Hain zuzen ere, BEZaren neutritasuna eta administrazio batek zergapekoaren zerga-egoitza foru-lurraldetik lurralde erkidera edo alderantziz bere kabuz aldatzeko ezintasuna batuta, eta eskumena bera erabiltzeari uko egin ezin zaiola kontuan hartuta (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeko 8. artikuluan jasota dator azken hori), zergapekoari ordainarazteko zeregina aldi baterako hartu beharra dago derrigor, zerga-egoitza aldatzeko prozeduran gertatzen denaren zain.

Azken batean, administrazio eskuduna zein den zehazteari buruzko desadostasun edo gatazka formal bat ebazten den bitartean, zergapekoa zergapetzen ari den administrazioak zergapeko hori haren eskumenaren mende eduki behar izatea kalterik ez egiteko kautela-neurria baino ez da, bai zergapekoentzat, bai administrazioentzat eurentzat, Ekonomia Ituneko eskumenak banatzeko arauak tributu-harremanetan sartzen duten konplexutasun objektiboa kontuan izanda. Erraz asimilatze moduko printzipio orokorra da hori, berez zailak diren gaiei konplexutasun handiagoa gehitzen dien testuinguru batean.

Zerga-egoitza aldatzeko prozedura bat ebatzi bitartean administrazio bat behartuta badago zergapekoa bere eskumenaren mende edukitzera eta ez badu betetzen betebeharrak hori –nahiz eta azkenean ebatzi zeregin hori ez dela bere eskumenekoa–, administrazio hori printzipioz behartuta dago itzulketetan izandako atzerapenen ondoriozko berandutze-interesaren kostua ordaintzera.

Hori horrela da –baita itzultzeko betebeharrak betetzea baino lehenago ere–, berandutze-interesak kalte-ordaina besterik ez direlako eta egin gabe geratutako

ordainketa bati (kobrantza atzeratzen zaionari kalte korrelatiboa egiten zaiolarik) aplikatutako atxikipenetik eratorritako onura objektiboa delako.

Hala ere, 74/2022 Ebazpenean (18/2017 eta 45/2017 espedienteak) adierazi dugun bezala, gaia hainbat elementu kontuan hartuta aztertu behar da; hala nola, preklusio-efektua eragin dezaketen egiaztapenak egitea komeni den, egoitza zehazten duten lotuneen deklarazioan zergapekoak duen erruduntasun-maila, eta abar.

Kasu honetan, ez da ikusten zergapekoaren fede txarrik ez eta zabarkeria larrikeria ere, BFAREN aldeko jatorrizko eskumen-deklarazioan, Auzitegi Nazionalaren 1997ko otsailaren 27ko eta 2000ko martxoaren 16ko epaiek ñabartutako zentzuan –epai horiek Gaztela eta Leongo Justizia Auzitegi Nagusiaren 2006ko maiatzaren 30eko Epaian jaso ziren (ECLI: ES: TSJCL: 2006:3371)– eta, beraz, ez dago justifikaziorik EIABAKO 15.2 artikulua ez aplikatzeko.

Eta, gainera, EIABAKO 15.2 artikulua betez CSA, SA eskumenpean edukitzen jarraitu behar zuen administrazioaren –kasu honetan BFA– ez-betetzea are kualifikatuagoa da, hasiera batean ez zuelako eskatu ere egin egoitza lurralde erkidera aldatzeko (Arabara aldatzeko eskatu zuen) eta, horren ondorioz zerga-egoitza lurralde erkidera aldatzeko proposamena 2005era arte atzeratu zelako, zergapekoak jasan beharrik ez duen gehiegizko atzerapena eraginez.

Horregatik, bidezkoa da pentsatzea zergapekoak bazuela eskubidea BEZAREN itzulketak legez ezarritako epean jasotzeko –hau da, borondatezko epea bukatu zenetik aurrera edo, BEZA garaiz kanpo aurkeztu izanaren kasuan, aurkeztutako datatik aurrera– eta, halaber, bidezkoa da pentsatzea borondatezko epea bukatu zenetik edo BEZA garaiz kanpo aurkeztu zen datatik sei hilabete pasatu ondoren berandutze-interesak sortu zirela.

Kasu honetan berandutze-interesok BFaren ez-betetzeari bakarrik egotz dakizkiokeenez, ondorioa da hari dagokiola interes horiek jasatea.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hauxe

ERABAKITZEN DU

1.- Deklaratzea ZAEAk duela eskumena CSA, SAri 2002ko BEZa ordainarazteko. Hala ere, BFAk hartu beharko du bere gain BEZ hori berandu ordaintzeak eragindako berandutze-interesen itzulketa.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioiko Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta CSAri jakinaraztea.